

2023-2024 ikasturte hasiera

Beste ikasturte bat hasi dugun honetan hainbat erronka eta borroka ditugu begibistan, Hezkuntza legearen testuinguruan, langileen lan baldintzak hobetzeko hezkuntza sailarekin sinatu dugun akordioa aurrera eramatea lan hitzarmenaren negoziazioa, leku aldatzea eta LEPa burutzea, ordezkoen araudia,...

Bestalde, hainbat gauza gogorarazi nahi dizuegu.

Alde batetik, ordutegiak egiterakoan kontuan izan beharreko jarraibideak argitaratuta daudela gogorarazten dizuegu, **Lotura honetan** dituzue ikusgarri. Bertan zehaztutako lan baldintzak LABek 2018an sinatutako akordioan zehaztutakoak dira gerora lan hitzarmena hobetu zutenak, beraz ezinbestekoa da guzti hauek errespetatzea.

LAB irakakaskuntzako web orria dugula esan nahi dizuegu: <https://irakaskuntza.lab.eus/> eta gure kolektiboko Lan hitzarmena, deialdiak, araudiak, gidak,... bertan aurki ditzakezu. <https://irakaskuntza.lab.eus/heziketa-berezia/>

Jardun bakoitzan sartu beharreko lan orduen laburpena duzue jarraian:

Jardun osoa	Jardun erdia
<p>Astean 37:30 ordu gehienez:</p> <ul style="list-style-type: none">• Arreta zuzena 30 ordu gehienez.• Material prestaketa eta koordinazioarako 2:30 ordu.• Bazkaltzeko 1 ordu egunean (jangela zerbitzua ematen denean bakarrik konputatuko da).	<p>HEZIKETA BEREZIA 2023-24</p> <p>Jardun erdia</p> <p>Astean 18:45 ordu gehienez:</p> <ul style="list-style-type: none">• Arreta zuzena 15 ordu .• Material prestaketa eta koordinazioarako 1:15 ordu.• Bazkaltzeko 30 minutu egunean (jangela zerbitzua ematen denean bakarrik konputatuko da).
<ul style="list-style-type: none">• Arreta zuzena: ikasgeletako, jolas orduetako, jangelako eta Hedatze programako arreta.• Jangela zerbitzua: jangela eta ondorengo jolas garaia.• Jangela zerbitzua egiten denean bazkaria jasotzeko eskubidea dago.• Hedatze programan arreta, kurrikulumari loturiko gaiak direnean eta lehen saioan denean bakarrik emango da.	

Jardun murrizketak dauden kasuetan, ordutegi bakar bat egin behar da eta ordutegi horren dagokion proportzioa egin behar du langile bakoitzak. Bi langileak ezin dira ordu berean egon ikastetxean. Bat ateratzen denean bestea sartuko da.

ORDEZKAGUNEA

LABek [Ordezlagunea](#) indarrean jartzeko akordioa sinatu zuenetik, ordezkapen bat bete behar denean, Ordezlagunea aplikazioaren bitartez eskaintzen da, Hezkuntzako atalean ordezkaguneko gida eskuragarri dago. Dena den, gogorarazten dizkizuegu ordu-tarte desberdinak :

1.Lan egoera aldatzeko ordutegia . Sistemak **9:30etik 13:00**etara bakarrik ahalbidetuko du zure lan egoera aldatzea.

2. Lanpostu hutsak betetzeko eguneroko eskaintza argitaratzeko ordua eta eskaerak egiteko ordutegia.

Hautagaiek **13:30etik 15:30**era egin ahal izango dituzte eskaerak.

3.Esleipena ikusteko ordutegia , esleipena egunero **16:30etik aurrera** egongo da ikusgai Ordezlagunean.

Bestalde, tramitagunea eta komunikabide plataformak erabilgarri daudela jakinarazten dizuegu.

> [Tramitagune Hezkuntza](#) administrazio espedienteak, eskaerak, erreklamazio formalak eta errekurtsioak sartzeko erabili beharko da. Administrazio-izapideetarako postontzia (ez du kontsulta orokorretarako balio)

Tramitagune Hezkuntza – ziurtagiriak. ziurtagiriak eskatzeko postontzia (Bakarrik Hezigunetik automatikoki ezin direnak deskargatu)

> [Komunikabide](#) aldiz, kontsultak, kexak eta iradokizunak egiteko erabili beharko da. Ez du espedienterik sortuko, ezta administrazio-izapiderik ere.

BakQ klabeak beharrezkoak izango dira tramite guzti hauek burutzeko.

Meritu bidezko LEP

Ikasturte honetan prozedura gehiago izango ditugula jakinarazten dizuegu. Hemen [deialdia](#) Dakizuen bezala, 2024ko abendua baino lehen prozesua ebatzita egon behar da. Gaur gaurkoz izena eman duzuenon onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda besterik ez dugu, erreklamazioak aztertuta behin betiko zerrendaren zain gaude.

Animo ikasturte berriarekin!

Hezitzaileok ere euskal eskola publiko komunitarioruntz!